

DIALEKTOLOGIAZKO JARDUNALDIAK DONAIXTI-IBARREN

Donostia, 1982-V-28

J. A. Letamendia

Nafarroa Behereko Donaixti-Ibarre herri polit eta ñimiñoan Lopez-en omenaldiaren kariatz Euskaltzaindiak antolaturik Dialektologiako jardunaldiak izan dira 1982.eko Apirilaren 16 eta 17an. Bertara bildu dira Dialektologiako Batzordeak deituriko lankideak eta euskaltzain buruez gainera hainbat euskaltzain oso ere lanerako gogotsu. Hogeita bost lagun batatz beste.

Gehienak eguerdirako han zirela arratsaldeko hiruretan ekin zaio lanari. Lehen hitzaldia Allières jaunaren izenean iragarrita bazen ere honen ezin etorriaz J. Haritschelharrek ireki du bilkura arbelean idatzirik zeuden hitzak errepikatuz: “hunki jin!”.

Laburki, duela zenbait urte Iparraldean egin zituzten dialektologiako entseguen berri eman du Haritschelhar jaunak. Lehenik, hautatu zituzten herrien zerrenda ezagutarazi du, berrogeita hamaika oro har, eta, ondoren, erabili zituzten inkesta mota biak: bata, hiztegiatz batipat, gutunez egin —gero Lafitte jaunak zehazkiago azalduko diguna—, eta bestea, morfologiatz, magnetofonoz bildua. Morfologiatzko galdekizunean 23 fitxa ziren eta 350 galdera frantsesez eginak deklinabidea, zenbakiak, erakusleak, adberbioak eta izenordainak bereziki jasotzeko taxutuak. Bilketan Monique Capdevielle eta Rogert Idiart ibili ziren herriz herri Iparraldeko probintzietan. Laguntzarik ezaz bide erdian gelditu zen asmoa helmugara iritsi ezinik. Haritschelhar jaunak dioenez hortxe daukagu lanaren hastapen bat eta berorren berri eman nahi izan digu sarrerako mintzaldi honetan. Beronen ustez atlas batean 2.500 galdera behar dira eta bilketa lana hiru modutara egiten da: zeharkako inkesta itzulpenaren bidez, galdera zuzenak eta, azkenik, hizketaldi librean grabaketak. Etno eta tekno testuak ere erabil daitezkeela dio harri batez bi txori hiltzen direlarik.

Ondoren Lafitte jaunak berak egin zuen lanaren berri eman du. Alemanian eta Suizan gaiak sailka eta eremuka galdegiteko era ikusirik horrelako zerbaiz moldatu nahi izan zuen gutunez biltzeko, ahaidegoa, abereak, arbolak eta abarri buruzko galdekizunak prestatuak. 23 herritako erantzunak jaso zituen izkribuz. Hala ere, ondorioak ikusirik ez deritza aprobezia halako bilketa sistemari: herri bakoitzean lagun bakar bat zuelarik, batzuetan lanpetuak zirela, bestetan hiztegiatan begiratuta erantzuten zutela, zenbaitetan bertakoak gabe etorkinak zirelako edota ortografia bera nor bere gisara erabiltzen zutelako, bilduriko erantzunak ez ziren espero zuen bezain fidagarriak.

Haritschelhar eta Lafitte jaunen azalpenak amaiturik elkarrizketa izan da lagun askok parte hartzen dutelarik. Besteak beste, erdaraz ala euskaraz galdegiteko arrazoiak aipatu dira, nolako lekukoa behar den, ikasia ala ez-ikasia, edota zer den hemen ikasia izatea, adina, e.a.

* * *

Seiak laurden gutxitan Koldo Mitxelenaren txostena, *Euskalkien ageriko aurpegi*, irakurri du A. Villasantek. Lanaren hasieran Euskal Atlasak eta dialektologiak dakarten atzerapenaren arrazoi nagusiak gogora erazi dizkigu: goimailako iker-zentzurik eta unibertsitaterik eza batetik, eta hizkuntzaren egoera bakartia, ahaiderik gabea, besteren saioez baliatu ahal izateko bestetik. Euskal hitzkuntz-atlasa hasi gabe bada ere ez da, haatik, horren urria dialektologiaren alorrean egin dena, hiztegiaren batez ere eta morfologian, aditzaz bereziki. Sintasian ere badihardu jendeak lanean gogotsu azken denbora hauetan. Arinen landu dena, hizkuntzaren muina ez den arren, oinarritzkoena izan da: hizketaren entzuteari eta ahozkatzeari dagozkionak. Dena den, Bonapartegandik hasi eta Azkuek, Bähr-ek eta *Erizkizundi Irukoitza*-n izkribuz bildurikoetan maiz igerri diezaiokegu notazioaren azpian dagoenari. Hala ere, morfologiazko zerrenda horiek ere egia erdizka baizik ez digute ematen inoiz, *tíot* dakartenetan, adibidez, ukatzean erabiltzen den *-títot* ere sartu behar bailukete, axaleko *dítot* adizkirik entzungo ez bada ere. Nola nahi ere, azken urteotako ikerpene-tan ardura handiagoa izan da fonetikazko gaiak arakatzen, baita azentua eta doinue-rari dagozkienak ere.

Ondoren, Mitxelenak traskrizio sistimak aipatzen dizkigularik baliokide klase adina letra edo ikur beharko ditugula esaten digu, behar den adina hots mota bereizten ditugula. Era berean tramankuiluak izanagatik ere belarria trebatu beharko dugula azken finean hots eta soinuok paperean eman beharko baititugu. Bilketan, esaten digu, berri-emaile da arrazoi duena: honek bereizten duena berezi beharko dugu guk ere eta honek berdintzen duena berdindu eta honentzat axola duena izango da premiazkoa guretzat ere.

Baliokide-klaseak ezagutzeko eta kideak kidekoekin biltzeko hiru maila bereizten dizkigu Mitxelenak bere txostenean: a) fonetika maila, b) fonologia maila, c) berriro fonetikari zuzenean atxikiz "azpiko" itxurapenen multzoarena. Oraingoz aski izango dugu lehen mailarekin, bigarrena eta hirugarrena geroko utziz. Egia esan, fonetika mailak oztopo larriagoak ekarriko dizkigu fonologikoak baino, fonologia egiteko, ordea, erabat ezagutu behar da alde zurretik aztertu nahi dugun euskalkia edo hizkera hori.

Belarri ernaia behar dugula esaten digu Mitxelenak hots ezezagunei antz emateko nork geure bahea dugularik askotan gehiegizko konfiantzaz bereizkuntza nabariak jaso gabe gelditzen baitira oharkabea, ALF-en bertan horrela gertatu omen zen eta berari ere bai Izabako mintzairan *ur/uR* adibideaz agertzen dugunez.

Beraz, lehen ikerketa honetan bereizkuntza fonetiko soilak jaso behar ditugu eta horretarako erabiliko dugun bahea erdikoa izango da, ez estuegia ez zabalegia ere.

Lanean aurkitzen ditugun oztopo bi aipatzen dizkigu Mitxelenak: Euskal fone-mak, bokaleak batez ere, urriak izatea eta fonetika gaietan jende prestatuak ez izatea. Bigarren hau konpontzeko bi bide proposatzen ditu: irakasle kanpotarrak gure-gana ekartzea edota zenbait lagun erbestera bidaltzea. Bitartean mintegiak antolatuz ekin diezaiokegu lanari ariketa horietan hizkuntza ezagun eta agian hobeto ezezagun-

netako zintak eta diskak erabiltzen ditugarik. Lan hauetan ari diren guztiek berdintsu jardutea komeni da *Erizkizundi Irukoitza*-koa bezalako anarkia gerta ez dakigun bederen.

Esan bezala, bigarren eta hirugarren mailak oraingo ahazturik gaia bilduko dugu eta noizpait izango dugu aukera analisis sakonagoak ere egiteko Praga nahiz Chomsky-Halle-ren ildotik. Horrela lan eginik eta gure fisikoek ere lagunduta ba omen daiteke geure-geurea den bidea asmatzea.

Bilketa hau presazkoa dela oroitaraziz bukatzen du Mitxelenak bere txostena, euskalkiak galtzorian baitira eta trumoiaren begira egon gabe oraingo ateraldiaz baliatzen jakin behar dugulako.

Irakurketa amaiturik elkarrizketa ireki da eta gehiena traskribaketaren auziaz izan da. M. J. Azurmendik, adibidez, bilketa hogeii lagunek edo egin arren traskribapenak zereginaren berri dakiten banaka batzuen ardurapean egon behar lukeela dio. Traskribatzaile gutxi izaki, bestalde, okerrak ere errazagoak izango dira zuzentzen beti berdintsuak izango direnez, bestela, esku askok parte hartuz gero anarkia kontrolagaitza sortuko da ezinbestean. A. Etxaidek, berriz, traskribaketa "zabala" behintzat erabili beharko dela dio eta horretarako ikastaro bat antolatzea komeni dela, denontzat. Traskribapen "hertsia" egiteko, aldiz, fonetista trebe eta aditu batekin kontatu beharko duela Euskaltzaindiak. Ukitu den beste gai bat adierazi beharreko datuena izan da, eta datu horiek fitxa batean bildu ala zintan bertan grabatu behar direnena. Fitxan eginik ere badirudi zinta bakoitzaren hasieran argigarriren bat ipini beharko dela zinta soila identifikatzeko. Hauek bederen aipatu dira jakingarrien artean: biltzailearen izena, bilketaren eguna, herria, auzoa, lekukoaren izena, adina, sorterrria, lanbidea, bai eta norekin ezkondua den ere.

* * *

Bigarren egunean, goizeko bederatzietan, A. Etxaidek eskaintzen digu bere gaia. Lehendabizi beraren lehen urratsak aipatzen dizkigu: 1965, 66 eta 67an Principe de Viana-ren laguntzaz Mitxelenak prestaturiko 300 galdera zituen galdekizun bat erabili zuen 70 herri koskorretan. *Fonética Histórica*-n aurki daiteke galdera haien funtsa. Lehen esperientzia batek izan ditzakeen hutsuneak gora behera orduan bildu zituen materialok argitaratzeko asmotan da. Harrezkero bestelako galdekizunak erabili ditu *Wunder and Sachën*-en arabera, erdaraz eta euskaraz.

Euskal hizkuntz-atlas batek behar duen herri kopuruaz mintzatu da ondoren. Beraren ustez 300 herri honelako bilketa baterako gehiegi direlarik aski izan litezke 175. Iparralderako Haritschelharrek aipatu dituen 51 tokiak onarturik, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian 40na herri eta Araban laupabost harturik 175 lirateke guztira. Bost ekiporekin, urtean hamarna herri eginez gero hiru urte 1'erdi iraungo luke bilketa eta traskribapen lanak, lasaixeago egitekotan lau.

Nafarroako herrien zerrendatik izen batzuk kentzea proposatzen du egungo egunean euskaldunik ez delakoan eta zerbait lorturik ere hutsune gehiegi liratekeelako galdekizunetan atlas batek eskatzen duen konparaketa lana burutzeko. Holako arrastoak aztarren bitxi edo direlako bildu nahi izanez gero besterik litzateke, ez dira ordea atlas baterako gaia. 175 herri nahiko sare trinkoa ditugu euskal atlas oinarritzeko. Atlas honek ohizkoak bezalako izan behar duelarik herri txikietara jo beharko da batipat, Lekunberrin edo Altsasun bildua ez bailitzateke horren baliagarria izango dialektologia egiteko. Irizpide hauetan erroturik A. Etxaidek Nafarroako

zerrenda berria banatzen du Batzordeak F. Ondarraren ardurapean egina areago zehaztuz eta zuzenduz. Elkarrizketan San Martinek, Satrustegik eta Ondarrak hartzen dute parte bereziki.

Aurrera jarraiturik, bilketan hasteko hobe dela halako euskalki mota "jator" egiten den herri batetik abiatzea dio A. Etxaidek, ibar bakoitzean ustez eredu edo izan litekeen herritik eta handik euskara ahulagoa duten edo euskalkiaren muga diren etara igaro. Honela mota horren irudia garbiagoa izango dugu eta irizpide zehatzagoa eskualdeko hizkerari antz emateko.

Antolaketaren organigraman lau lagun aipatzen ditu lehendabizi: zuzendaria, zuzendari ordea, diruzaina, eta inkesta eta traskribapen koordinatzailea. Azken hau eremu jakinari lotu gabe batetik bestera ibiliko litzateke elkarren berri eramanez. Bilketan bost talde ariko dira bakoitza 40 herriz arduratzen delarik; urtean hamarna herri egin ditzakete. Talde bakoitzean buru bat eta bigarren bat izango dira: buru denak galderak jaulkitzen ditu eta oso ongi ezagutu behar du galdekizuna, bigarrenak magnetofoiaren ardura izango luke, zintak gorde eta sailkatuko litzuzke, e.a. Hirugarren bat ikasle laguntzaile gisa ari liteke beronen eginkizuna inguruko hotsak uxatzea delarik edota mandatuak egitea. Satrustegi jaunak birekin ere aski litzatekeela diolarik ados da A. Etxaide ere.

Grabatu denaren traskribapena luzaro gabe hurrengo inkesta jaso baino lehen egin behar dela, dio: horrela zalantzak garaiz argitzeko eta okerrak zuzentzeko aukera izango dugu. Bi koaderno mota eramatea kontseilatzen du hizlariak. Batean oharrrak eta xehetasunak jasoko ditugu: zein baserritan ibili garen, nolako lekukoa aurkitu dugun, e.a. Bigarrena erantzun koaderno litzateke; bina koaderno toki bakoitze-ko, bat erantzunak zikinean hartzeko eta bestea garbira pasatzeko. Berrehun herri izanez gero larehun koaderno erantzunak jasotzeko.

Lekukoa bilatzeko, informatzailea alegia, apaiza edo alkatearengana jo izan du. Buru argikoa izan behar du lekukoak, zuzen erantzungo duena eta zeren bila gabiltzan pitin bat bederen ulertuko duena. Euskaraz aski dakiene, noski, eta ongi ebakitzten duena. Morfologia eta fonetikazko galdekizunak hobe da bakar batekin egitea, lexikoarena, berriz, bi lekukorekin ere egin daiteke, etxeko gauzak, adibidez, etxe-koandreaki galdeginenez eta laborantzakoak gizonari.

Saioek ez dute luzeegiak izan behar lekukoa nekatu egiten baita eta orduan erantzunak ahulak, motelak edota okerrak gertatzen baitira. Ordu t'erdi gehienik edo bi ordu, bat goizetik eta bestea arratsaldetik izanez gero. F. Ondarrak honetaz mintzo delarik lekukoak ez direla maiz nekez ohartzen dio, baina hurrengo egunean ezin izan dutela lorik egin aitortu izan omen diote inoiz, eta P. Uribarrenek zahar batzuri ordu erdiren buruan boza joan egiten zaiela, dio.

Tokia ere ongi aukeratu behar da: ikuilu edo ura darion iturri baten ondoan ez dira egokiak, adibidez. Tamalez askotan zaharrak ezin izaten dira batetik bestera mugitu eta sukaldean bertan egin behar izaten da grabaketa.

Harreman goxo eta naturalak behar dira baina denborarik galdu gabe, ritmo egokian eta disziplinaz grabatzen dugularik. Hamabost galdera egindakoan, esate baterako, magnetofonia itzal eta atsedentxo bat har daiteke, baina bitarteko elkarrizketa hori ere jaso nahi baldin bada beste nonbait grabatzea komeni da galdekizunaren haria eten ez dadin.

A. Etxaideren hitzaldia amaiturik askok hitz egin dute baina hitzaldian zehar ere etengabeko elkarrizketa arina izan da. P. Uribarrenek ahotan harturik, Bizkaiko herrien zerrendaz mintzatu dira J. M. Etxebarria eta J. L. Lizundia ere.

* * *

K. Rotaetxek goizeko hamaika t'erdietan hasten du bere azalpena bi galdekizun mota bereziz: atlas galdekizunak eta monografiak. Monografiatan mintzaira baten alderdi ugariak uki daitezkeela dio, fonetika, fonologia, morfologia, sintasiari eta hiztegiari dagozkionak. Atlasetan, berriz, fonetika eta hiztegia dira aztertuenak; morfologia ere biltzen da baina nahi-ta-ez morfofonologia egin behar izaten dela, dio. Fonetikazko ikerketak egiteko aski galdekizun bereziak erabiltzen dira eta fonologia egiteko *pares minimos* direlakoen alderaketa. Morfologian paradigma guztiak sar daitezke base mota diferenteak gogoan dauzkagula. Zazpi base ditugu euskaraz bost bokaleak, Zuberoan sei, eta kontsonantedunak kontutan harturik. Axola handikotzat jotzen ditu K. Rotaetxek armonizazio fenomenuak eta adibide gisa *lagun* eta *gizon* baseen berezitasuna aipatzen digu, biek bukaeran *-n* duten arren batean *lagune* baitugu eta bestean *gizona* aurreko *u* hori dela eta, era berean, *mendixé*, ez *mendixa*, baina *mendixak* pluralean, Ondarruko hizkeraz. Azentu eta doinuarenak ere ez ditu ahaztu bere adierazpenean eta sintasiaz ari delarik nominalizazioen gaia aipatu du bereziki. Galdeketa dela eta erreferente batzuen zailtasuna aipatu du eta traskrizioan bokalis-moaz mintzatu da batipat hots hauei dagokien egitura fonetikoaren araberaino.

Inkesta biltzeko arau praktikoak emanez konfiantza hartu arte magnetofonia ez ipitea kontseilatu du eta bitartean oharrak idatziz jasotzea. Lekukoaren adiskidetasuna gureganatzen saiatu behar dugula dio eta honek zertara jotzen dugun beragana jakin behar duela nolabait ere. Galdekizunak asmatzerakoan helburu bereziak gidatu behar gaitu: nolako helburua halako galdera motak prestatuko ditugu. Jarrera dela eta berriemailea ezker aldean edukitzea gomendatzen du, eskuma aldera idazten baitugu eta honen arreta ez da desbideratu behar paperekoak ikusi nahiz. Biltzaileak, aldiz, ez du paperari lotua egon behar eta ahozkatzean lekukoaren ahoa, ezpainak, ikusi behar ditu *b/d* berezkuntza, adibidez, atzemateko.

Lekukoaren datuak aurretik zintan grabatzea komeni dela uste du Karmelek, harengana joan baino lehen, eta kalkoz galdekizunaren kopia bat ateratzea gero erantzunak garbira errazago pasatzeko. Batzuek koadernoak erabiltzen dituzte erantzunak jasotzeko, beste batzuek fitxak, berak folioak. Materiale guztiok behar bezala biltzeko eta sailkatzeko kodigo gisako zerbaiten beharra aipatzen du, fonetikan, esaterako, F1, F2 ..., morfologian M1, M2 ... e.a. ipiniz bereizten ditugularik.

* * *

Arratsaldeko 3'30etan J. M. Etxebarriak hitz egin du Sever Pop-en oharrak eta bere esperientziakoak bildurik dialektologi lanetarako aholku praktiko batzuk emanez. Aurreko hitzaldietan esandakoak ez errepikatzen saiatu da. Lehenik Sever Pop-en lanaren, *La dialectologie* obra agortuaren berri eman du beronen edukira eta garrantzia azpimarratuz, eta gaiari atxikiz inkesta lanetan gogoan behar ditugun puntu batzuk azaldu ditu.

Honek ere galdekizuna nahi eta behar den xederako antolatu behar dela esaten du. Lekukoa dela eta, berriz, herrietara joan baino lehen fitxak bidali daitezkeela dio nolako lekukoak nahi ditugun adieraziz, gero, bertara joanik bat edo bi hauta ditzan.

gun horien artean. Alde horretatik aurre-inkestaren garrantzia eta baliagarritasuna azaltzen du Etxebarriak.

Lekukogaien aurre aukera honek bitarteko baten laguntza eskatzen du; bitarteko hau arduratuko da aldez aurretik lekukoak aurkitzen eta fitxak betetzen. Leku-koari garbi agertu behar zaio gure asmoa, bertako euskara nahi dugula, alegia, ez Tolosakoa. Biltzaileak lekukoaren ordu eta ohituretara makurtu behar du honen etxeko bizimoduan nahastekarik izan ez dadin. Grabatzerakoan gertatu ohi diren usteka-beei itzuri egiteko leku egoki bat bilatu behar da eta etxean ezin delarik herriko leku baketsu eta isil batera joan daiteke, elkarte batera, soziedade batera edo beste nor-nahi. Taldean edo lagunartean egiten diren grabaketak arriskutsuak izaten dira eta aski nahasiak suertatzen dira maiz batek baino gehiagok hitz egiten dutelako batean edota bozak identifikatzeko zailtasunak ere badirelako.

Biltzaileaz A. Etxaidek esanak ontzat ematen ditu Etxebarriak, egutegi bat behar dela, zuzendaria, e.a. Dialektologiazko bilketak egitea lan gogorra dela oroitarazten digu, ez atsegina, ez dela turismo egitea eta seriooki egitekotan ez dela larunbat eta igandeetan egiteko utzi behar den lana. Biltzailea, bestetik, lekukoaren izakerari makurtu behar zaio; ez du autoritario izan behar. Biltzaileak, azkenik, entzuten jakin behar du eta entzuten duena traskribatzen ikasi behar du oharkabean berea edo inguruko euskararena paperean isuri gabe.

Bukatzeko grabaketaren alderdi tekniko batzuk gogorazazi dizkigu Etxabarriak. Tokia eta garaia ongi aukeratu behar dira. Tresnei gagozkiela hobe da zinta zabala eta libreka kaseta baino eta zenbat eta abiadura bizkorragoan grabatu hainbat garbiago jasoko dugu. Nolako fusibleak behar diren eta bada-ek pada ere aldagarriak eraman behar ditugula. Mikroak unidirekzionala izan behar duela inguruko hotsak bereganatuko ez baditu eta edozein tresna elektronikorekin behar den arretaz ibili behar dela esaten digu, kolperik eman gabe, eguzkitan utzi gabe, e.a.

* * *

Arratsaldeko Setan jardunaldien ondoko erabakiak hartzeko asmoz J. M. Satrustegik daramatza elkarrizketaren hariak.

Udarako proposatu den galdekizuna luzatu ala moztu behar den eztabaidatzen da, zer erantsi, zer alda eta zer zuzendu, forma mugatuak ala mugagabeak eskatu behar diren ala bietarikoak. Zenbait lagun beren oharrak batzordera eskutitzez bidaltzekotan gelditu dira. Galdekizuna ez da luzeegia eta goiz edo arratsalde batean erraz burutzen ahal da.

Ezer erabakitzen ez bada ere lantsariena aipatzen da: lanaldiak orduka edo nola ordaindu, bidaiak, ostatu dietak, e.a. Satrustegi jaunak udako lan honetarako norbait liberatu behar den galdeginik ezetz erantzuten zaio.

Hamaseik eman dute izena uda honetako bilketan, bakarka nahiz lagun batekin, parte hartzeko: J. San Martin, J. M. Etxebarriaren laguntzaz, Eibarren ariko da; A. Etxaide eta B. Muniategi, Sakanan; Baztanen, Goizuetan, Esteribar eta Aezkoan; M. Salinas Lekeition; E. Knörr Etxague, Elosu, Legutiano, Urrunaga eta Urbinan; R. M. Pagola, Bortzirietan eta Basaburua Txikian A. Etxaiderekin koordinaturik; X. Altzibar eta X. Videgain elkarrekin Markinaldean eta Zuberoan; P. Uribarren Aramaion; M. J. Azurmendi Hernani aldean; K. Rotaetxe Bakion; F. Ondarra Burundan eta Urdazubín; J. M. Etxebarria Sopelau, Azkoitia eta Ataunen; J. Casenave Azpar-

ne aldean; G. Aurrekoetxea Arratian; A. Irigoyen Allustin eta J. A. Letamendia Hondarribian.

Zenbaitek beren grabagailuak badituztela eta badirudi Euskaltzaindiak erosi berri dituenekin denontzat iritsiko direla estuasun handirik gabe.

Epeak jarririk, eskutitzez egindako oharrak hurrengo Maiatzaren 15erako bidaltzea erabakitzen da eta 21ean bilkura bat izango dela arratsaldeko 6'30etan Donostiako Diputazioan. Udako lanak, zintak eta traskribapenak, Irailaren 30rako eman beharko dira eta Urriaren 16an, larunbata, bilkura bat izango da egindakoa aztertzeko eta hurrengo pausoak erabakitzeko.

Herrialde bakoitzeko arduradun bat izendatzen da: Iparralderako X. Videgain; Goi Nafarroarako A. Etxaide eta Hegoaldeko beste hiru probintzietarako J. M. Etxebarria. Bestetik, ez dela lan honetarako jende berririk hartuko erabakitzen da. Batzordean idazkari berria behar delarik J. M. Etxebarriaren izena proposatuta, aho batez onartzen dute batzordekide guztiek.

Jardunaldiotako azken hitzak A. Villasantek esaten ditu. Euskaltzainburuak zorionak ematen dizkie bilduei bi egun hauetan egindako lanagatik euskal dialektologiaren bideetan aurrerako urrats nabarmena gertatuko den itxaropenetan.